

Gazteak eta gabonak

GAZTEAK ORO
GAURKOAK ZORO?

ALA

GAZTEAK ORO
DIRE URRE?

Aurkezpena

Aurreko alean gazteek gizarteko zenbait arazoren aurrean agertzen zuten jarrera kritikoa azalerazteko hainbat esaldi bildu genituen. Flash txiki bat edo izan zen, baina benetan interesgarria. Kritika zorrotzak eta zehatzak jaso ahal izan genituen beraiengandik.

Horrela, oso osoan, irakasle-ikasketak egiten ari diren makina bat gazteren ikuspuntuak eta eritziak hurbiletik eza-gutzeko eta aztertzeo aukera izan genuen. Orduko aztergaia, gizartea eta inguruko arazoak izan genituen.

Oraingo honetan, gazte horiek Gabon jaiei buruz aditzera ematen diguten ikuskera eskeini nahi dizuet. Berauen sako-neko erlijio-mundura hurbiltzeko atebitartetxo bat edo egin-go zaigula uste dut.

Denok dakigunez, Gabonek izugarritzko arrakasta izan dute kristau herrialdeetako bizitzan, eta urtean zehar beste kristau-jai handiagorik baldin bada ere, jai hauetan bildu baita, nolabait, kristau bizitzaren kutsurik alaitsuena eta itxa-ropentsuena.

Bestalde, Gabon jaioak ate-bistan ditugu eta ez zaizkigu

gaizki etorriko gazte horien gogaketok. Hori dela eta, Flash gisara, *Gabonak lehen eta orain* galderari erantzuterakoan gazteok esandako hainbat lerroalde eskeintzen dizuet. Bertan agertzen zaizkigun ikuspuntuak eta kritikak nahasian eskeiniak dituzue ongi zeharturik biltzeko biderik ezin izan dut asmatu eta.

a) Gabonak guztiz aldatuta agiri zaizkigu

«Orain, berriz, dena aldatuta dago; etxeok sakabanaturik gabiltza: amona nekatu egin zen lapikoak mugitzen eta haren janarien orde bestea batzuta sartu dizkigute: ganba, aterrain eta «aberatsen» beste zenbait janari. Aitak kantatzen zituen kantuak, orain telebistak kantatzen dizkigu, eta ez dugu ezer elkarri esateko; gainera, beharrezkoa da isilik egotea, bestela haria gal dezakegu eta...

Pertsonaren tokia makinak betetzen dute eta lehenagoko Gabonetako alaitasuna eta berotasuna tristura eta bihotzeko hotza bihurtu zaizkit».

«Gaur egun Gabonak ez dira aintzina izaten ziren bezalakoak. Ez dakigu zein den Gabon egunaren zeresana; ez gara benetan ospatu behar duguna zer den konturatzen. Bakarrik, jaiak direla ikusten dugu, baina erlijio mota galtzen utzi dugu. Ez denok baina bai jende askok. Familia orain ere alkatu egiten da baina alkarketa horrek ez dauka antzinako berezitasunik; orain beste egun bat izatea legez da».

«Sasoia aldatu diren neurrian Gabonak ospatzeko modua ere aldatu egin da. Hauek urtero ospatzen dira baina ospatzeko eran pentsatzen badugu, konturatuko gara ospakizun hau gero eta era desberdinagoan egiten dugula eta apurka apurka denok gogoratzen dugun zentzu hori galduz joan dela».

«Nire ustez lehenago Gabonak gaurkoak baino alaiagoak izaten ziren. Esan nahi dudana, egun haietan irudipen handiagoa zegoela da. Jendeak, Jesus haurra jaio zela gogorapenetan hartzen zuen eta honegatik egoten zen hain pozik. Etxe guztietan Gabonetako arbola eta Jesusen Jaiotza ipintzen zituzten. Sendi osoa batzen zen eta denek itxaroten zituzten egun hauek barera egoteko eta urte horretan pasatu ziren gauzak elkarri kontatzeko. Denek Gabonkantuak kantatzen zituzten Jesusen jaiotzaren ondoan eta eleizatik eleiza joaten ziren jaiotzak ikustera eta Jesusi jaio izan zelako eskerrak emateko.

Lehenago Gabonetan sinismen eta itxaropen gehiago egoten zela esan daiteke. Gaurko Gabonek ez daukate antzinako giro hura. Orain gu alaitzen gara baina ez Jesus jaio delako, oporrak dauzkagulako baizik. Eta Gabonok noiz helduko diren pentsatzen dugu egun hauk pa-

satzeraz edo Benidorrera edo beste leku batetara joateko. Turroia, txanpana eta janari ona dagoelako gustatzen zaizkigu baina Gabonen esanahia apurka apurka galtzen ari gara».

b) Aldaketa hori erlijioaren kaltetan eta Kontsumismoaren pentsutan egin da

«Orain dela ez urte asko, Gabonetako nota printzipala Jesusen jaiotza izaten zen, eta nota hau, bai gizonen barruan eta bai giroan zegoen. Baina, gaur egun, nire ustez, nota printzipala publizitatea da. Leku guztietatik publizitatearen eragipena ikusten dugu. Alde batetik jateko gauzen propaganda, geto Olentzaroren edo Erregearen egunentzako propaganda eta abar; dena publizitatea da. Nik galdetzen dut ea non dagoen jai hauetako zentzu printzipala».

«Argi eta garbi ikusten dugu lehengo Gabonak eta oraingoak oso desberdinak direla. Zergatik? Nik pentsatzen dut, alde batetik lehengoak jendearen fedean oinarriturik zeudelako eta orain, ostera, fede hori galdua dagoelako. (...) Irabazbide bat bihurtu dira».

«Antzinan, Gabonak, Kristautasunaren eraginez, sendia alkarrekin egoteko une egokia eta berezia ziren. Une horretan pertsonak zeramaten sendimendua kanporatzen zen; une horretan Kristautasunaren mistika mundu guztiak bizi zuen edo bizi izaten omen zuen, behintzat. Garaiaren eragipenez, osagarri bezala, edo, beharbada, paganoen ohiurretan oinarrituta alkarri opariak ematea sartu zen. Gaur egun, azkenengo parte hau mantendu egin da eta, ikusten dugunez, gero eta gehiago lehen aipatutako mistika galduz. Baina ez dugu hori bakarrik; gauza bat erantsi behar zaio: Gabonek dakarkiguten kontsumismoarako egokitasuna. Lehenagoko oparien elkarraldaketa hortan geratu zaigu».

«Nire ustez lehenago jendeak ez zukeen hainbesteko harrokeriarik, kultura mailan ere pobreagoak ziren, baina uste dut bihotza guk baino argitsuago zeukatela. Orain dena turroia, txanpana, janari onak baino hobeagoak... askotan dena harrokeria dela pentsatzen dut. Gabonetan pakea eskatzen dugu, maitasuna eskatzen dugu, baina bakar bakarrik eskatu. Hau da lehengo eta oraingo Gabonetako desberdintasuna».

«Gaur 1981garen urtean gaude eta Gabonak guztiz desberdinak dira. Gaur ere familia guztietan denak elkartzen dira baina ez dago ilusia. Gaur egun jaietan ondo jatea eta ondo edatea bakarrik pentsatzen dugu. Tradizioetatik kanpo gaude; kontsumidore hutsak bihurtu gara».

«Horregatik ikusi behar den lehen desberdintasuna, gaur gizartea lehenakoa baino laikoago izatea da, hots, jendeak ez dió ematen hainbeste ajolarik. Azken bolada honetan kontsumurako gizarteak behar franko

sortarazi digula ta, jai hauek ospatzeko txanpana, turroia, jostailuak,... eta abar erosi behar ditugu derrigorrez. (...) Nere ustez Gabonak zentzu gabe gelditzen ari dira eta erosteko oportunitate huts bihurtzen».

«Gabonetako ezaugarriak maitasuna, laguntasuna, barnebilkuntza, bakea eta abar izaten dira; eta diodanez, izaten dira, ez dira eta (...) kontsumismoaren hatzapar barnean harrapaturik gaudela (...) Gaur egun larregi jaten da, edan ere bai, hori dela eta mozkonti gehiago agertzen zaigu. Parra parra botatzen dugu dirua nahiz eta jendearen beharrak edo premiak ikusi».

c) Lehenagoko Gabonek zentzu eta sakontasun handiagoa zuten

«Nire ustez, lehenagoko eta gaurko Gabonak guztiz desberdinak dira. Lehenago Gabonetan Jesukristoren jaiotza ospatzen zen, baina benetan, ez orain bezala. Gaur egun, Jesukristoren etortzea jende gehienentzat zeozer ospatzeko eskusa bat bezala da. Eta hau baita ere, era hau da txarrena, kristauen artean. Nire ustez, Kristoren jaiotza mundu osoan benetan ospatuko balitz, teorikoki mundu osoan ospatzen da, askoz ere hobeto egongo litzateke mundua. Horrek mundu osoak Kristoren esanak jarraituko litzekela esan nahi izango luke. Eta hori gaur egun ez da egia».

«Lehenago Gabonak zoriontasunezko egunak ziren; Jesus jaiotza eta egun baketsuak izaten ziren; gure Jauna hurrera etorria zelako jendea pozik egoten zen eta hau bakarrik ospatzen zen. Jendea elkartzten zen eta bakea eta maitasuna gehitzen ziren. Lehen orain baino gehiago bake-egunak izaten ziren eta sendi osoa batzen zen. Baina jaiak eta oporrak berriz irabazi dute. Gehienentzat inportanteena oporrak eta jaiak egotea da. (...) Gizartea aldatu egin da, baina gure semei Gabonak zer diren irakatsi behar diegu eta egun hauetan BAKEA zer den ere irakatsi behar diegu».

«Lehenago Gabonak jende gehienentzat sinismen gehiago eukiteko ziren; orain, ostera, jendeak ez du jan eta edan eta baita ere kalean ondo ibiltzea baino besterik pentsatzen. Horregatik nik uste dut Gabonak sakontasun gutria galtzen doazela eta hori penagarria da. Nire ustez, nahiz eta jendea kalean ibili, eta jan eta edan egin, hala ere Gabonak Jesusen jaiotzako egunak direla gogoratu beharko litzateke».

«Lehenagoko Gabonak azaltzeko, nire eritziz, bi gauza kontutan hartu behar ditugu: Alde batetik erlijio sentimentua. Lehengo jendearentzat,

gehienentzat behintzat, Jesusen jaiotzak sentidu bat zeukan jendearen bizitzan; egun hauetarako, jendeak erlijio prestakuntza bat zeukan eta egun hauek Jesusen jaiotza era batera edo bestera bakoitzaren bizitzan ospatzeko itzaroten zituzten. (...) Gaur egun erlijio sentimendu hau jende gehienak galdu egin du eta Gabonak ez dira jai egun batzuk baino besterik. (...) Gaur egun, nire eritziz, ez dira familia askotan behintzat, familia elkartzeko egunak ere».

d) Ohiturak eta ere gehien bat galdu egin dira

«Lehenago jendeak guk baino gutxiago zeukan, baina jai hauetan gu baino zoriontsuagoak izaten ziren. Urtean zehar ez zuten gauza askorik jateko, baina Gabonak heltzen zirenean oso pozik eta zoriontsu ipintzen ziren, alde batetik jateko gauza hobeak zintzelako eta beste aldetik heuren barnean Jaungoikoaren jaiotzaz nabaritzen zirelako. (...) Lehenago Gabonetan tradizio asko zeuden eta gero galdu egin ziren, baina orain berriz irititzen ari dira. Niretzat gaurko Gabonak laster desagertuko dira eta bakarrik jateko eta ondo pasatzeko egun batzu izango dira».

«Baina gaur egun Gabonak asko aldatu dira; orain azalekoagoak dira eta gainera galdu egin da, ez bakarrik familien garrantzia, baita ere erlijio garrantzia. Horregatik nire ustez, gaur egunetako Gabonak jolasak dira eta ez dute beren adierazia; Jesusen jaiotza eta geure arimaren salbazio-hasiera».

«Gabonak jai batzuk dira eta Jainkoaren jaiotza ospatzeko sendi guztia alkartzen da. (...) Baina orain urte batzu direla beste animazio bat zeuzkaten Gabonak; izan liteke askoz ere konpetentzia gutxiagoko beste gizarte lagunkoiago bat zegoelako. (...) Gauetan norbaiten etxean auzokoak elkartzen ziren eta amonek edo beste batzuk kantatzen zuten, beste batzuk soinua: pandereta edo akordeoia jotzen ibiltzen ziren eta beste guztiak dantzan. Orain, ostera, Gabonetan afaldu eta gero danok gaude telebistari begira edo kartetara jolasten. Jendeak ez daki aintzina bezala dibertitzen; ez eta ere ez gaude lehenago beste elkartzuta».

«Badagoz halan eta guztiz, galdu ez diren gauza batzu eta horrela, oraindik Gabonak heltzen direnean, sendietako partaideak batu egiten dira, denen artean jai ospatzeko. Gabonetako abesti asko gogoratzen dira eta herri askotan, txikietan gehien batez, haurtxoak giroa berotzen kalez-kale eta etxez-etxe joaten dira. Niri, personalki, giro hau asko gustatzen zait baina zoritxarrez, urterik urte Gabonetako giroa txarragoa da».

e) Kristautasunaren seinale izan beharko lukete

«Gabonak lehen eta orain kristautentzat zentzu bat daukate. Gure salbatzailea jaio zela. Egun honetan etxekoak alkarturik egoten gara eta danok batera pasatzen dugu Gabon eguna».

«Baina zailagoa izango da gizarte honetan lehenengo Gabonen zentzua aurkitzea: Txiritasuna, bakea, elkartasuna,... Neretzat jazoera harrigarriak ospatu behar dira, pozik eta zoriontasunez beterik, baina zer ospatzen den ahaztu gabe, zeren formak eta moduak baldintzatzen bait dute».

«Garai hau maitasunez janri nahi izaten zuten eta bizitzari beste zentzu bat eman ere bai. Niri hori ez zait gaizki iruditzen, baina ulertzen ez dudana, zergatik garai horretan bakarrik egiten den da. (...) Beste aldetik Jesusen jaiotza ez da ospatzen; batez ere oporrak dira kontutan hartzen dena. Gero kontsumuzko gizarteak, guk egiten dugun giroaz baliatzen da eta bere interesak aurrera eramaten ditu. (...) Ia ia, egun hauetako zentzu erlijiosoa galtzen da».

«Gabonetan Jesusen jaiotza ospatzen da, eta hori da, esaten dutenez, inportanteena; orduan egun horietako alaitasunak horregatik izan beharko luke. Baina guk ospatzen duguna, jaiak eta oporrak dira, betiko ohiturak segituz, noski. (...) Gabonetan, jendea batzen dela esaten dute, eta, bai, jendea elkartzen da ondo pasatzeko, baina horrek ez du esan nahi maitasun gehiago sentitzen dugunik; nire ustez, gure sentimenduak aldatzekotan ez dira Gabonetako influentziatik aldatzen».

«Urtearen barruan jai asko ditugu, batzu beste batzu baino luzeagoak, alaiagoak eta garrantzi haundiagoak. Guk, kristau garenok; behintzat, garrantzi haundienetarikoen artean Gabonak ditugu eta guretzat zentzu bakar bat eduki beharko lukete. Zein den zentzu hori? Jesus umcaren jaiotza, ez bakarrik jazoera historiko bat legez, denok ikasi dugun leku eta une haretan, baizik eta gure eguneroko bizitzan.

Baina ez dankagu sasoi hauetan, gure inguruko giroari adi egotea baino, Gabon jaien zentzua noraino aldatu dugun ikusteko. Zer dira guretzat gaur egun Gabonak? Nik uste dut, argi dagoela jai hau izan behar ez litzatekela izango gure bizitzan, egi eta jazoera hagatik izango ez balitz, baina guretariko askorentzat, hein haundi batetan kristau zentzua erdi galduta dago.

Orain urte batzu direla, zentzu hau biziago egonik, beste mota batetako giroa (nire ustez osasuntsuagoa eta sakonagoa) ikusten zen gure inguruetan. Adibidez garrantzi gehiago ematen zitzaion sendi-bizitzari:

egun hauetan, ahal izaten zen neurrian, alkartu egiten zen etxe batetan. Euskalerrian, hau baserrian egiten zena».

«Nik uste dut lehenago Gabonak sakonagoak zirela. Orain Gabonak beste jai-egun bat bezala ospatzen dira: dantzan egin, kanta, eta garrantzi haundikoa, jan eta edan ondo egitea. Jendea pozik egoten da, baina ez da Jesus jaio dalako izaten, zilbota heterik daukalako baino. (...) Adibidez, gaurko izparringian irakurri dut, Polonian Gabon eguna denez, ez dela «toke de keda»rik egongo, jendeak eguna ospatzeko.

Jesusen maitasun eta pakezko mandatuak egun baterako bakarrik balio du, bere jaiotzaren egunerako; bihar barrirako hartu armak eta kalera; bihar barrirako «toke de keda» eta ez bakarrik Polonian; hemen ere Gabon egunean danok gara lagunak, baina bihar barrirako arpegi luzeak, barrirako mustur luzeak; Gabon eguna joan da, bihar ez gara lagunak».

«Ba daude erreligio alorrean ere desberdintasunak. Jende askok jai hauek afari ederrekin, edari ederrekin erab. erlazionatzen ditu; jende gutxi gogoratzen da Beleneko umearekin eta hori alde batetik penagarria da».

«Festa hauek soilki izaera erlijiosoa eukiten zuten, baina gaur egun izaera hau galdu egin da toki gehienetan. Orain dana farsa haundi bat da. (...) Jesusen jaiotzak beste aukera bat, zuzentzeko aukera bat ematen die gure bizitzetara. Batzuei kristau lege moduan, beste batzuei beste modu batetan... ez dakit».

f) Lehenago eta oraingo Gabonen arteko ezberdintasuna

GABONAK LEHEN

«Ama eta semetxoa jaiotza argitsuaren aurrean pozez eta alaitasunez:

HATOR, HATOR, MUTIL ETXERA...

—Seme maitea, Jesus jaio dela eta otoitz egin dezagun:

GURE AJTA ZEKUETAN ZARANA...

—Ama, ama... Jesus orain jaio izan balitz hain ona izango zatekeen?

GABONAK ORAIN

«Ama eta semetxoa, egun ilun eta euritsu batetan Bilbo zeharrean zehar, pankarta baten atzean tristuraz:

HATOR, HATOR, MUTIL ETXERA...

—Seme maitea, injustiziaren aurka, borroka egin dezagun:

PRESOAK KALERA!

GABONETARAKO EUSKAL TELEBISTA!

—Ama, ama... Jesus orain bizi izan balitz non jaio izango zatekeen?

— Bai, ume, eta zu ere hain onazaren legez, joan zaitetz alboko mendira jaiotzarako goroldioaren bila.

— Ama, datorren Gabonetarako Jesus berria beharko dugu, oraingoa lorrinduta dago eta.

— Bai, Josetxo, loteria tokatzen bazaigu, Jesus eder eta handi bat erosiko dugu.

—...Uhm, joan zaitetz beheko supermerkepozgaidendara, nik enkargatutako janari oparoak eta edari gozoak ekartzera.

— Ama, Behelenen ezer dago orain? — Bai, guda, petrolio, palestinarak, Reagan... badakizu mundu honetan ez dago inor konforme.

— Baina kontuz, orain Gabonetan gaudenez: Behelenen «alto el fuego» delakoarekin dabilta, petrolio ez digute igo, Reaganek misil bi gorde ditu...»

f) Gabon kanta herritarrak (Zornotzan bilduak)

1. — «Belengo tenploan dago dama eder bat jarririk izena bere Maria dauko graziaz adornaturik. Bai Belenen, bai Belenen jaio da Jesus Nazare».

2. — «Urte barri, barri, barri; daukanak ez daukanati, nik ez daukat eta niri. Nire emoten daustana Jainkoak bedeinkatu bedi. Niri emoten ez daustana txarri belarri».

3. — «Erregen, etregen tinbilin tañie lau intxaur ta bost gastañie. Apalazio zalduna hiru erregen eguna zotzak eta paluak estudiantien kontuak. Estudiantiak sasirik sasi, masko jan eta gutxi ikasi».

Azken hitzak

Gazteok aho batez salatzen digute gaur egunetako Gabon jaien inguruan muntatzen den kontsumismoko giro nazkagarria. Behar bada, beraiek ere gizarteko otso izugarri horren hatzaparretan eroriko dira, bai, baina esanak esanda daude.

Kristauok ba dugu zertaz arduratu eta non saiatu barriro ere Gabon jaici lehen zuten salbaziozko giroa eskeintzeko. Esaldi guzti horietan agertutakoa hitz laburretan biltzeko honako hau jarriko nuke:

GABONAK KRISTAUTU BEHARRA DUGU

Biltzailea eta aurkeztailea
Patxi Uribarren